

## **Loreak eta haziak**

*El Mundo del País Vasco*, 1991-11-08.

Udaberriak loreen hila duen bezala, udazkenak ere badu goibeldura moreaz jantzia dagoen loraila; argiz eta aldarrez aurkakoak badira ere loreak medio adierazten dira bi sentipenak: naturaren berezko poza da maiatza, negutegiko lore ebakiak dira gehienbat hilerrietan dolua agertzeko santu guztien egunean eramaten direnak. Halaxe ikusi ditugu aurten ere gure hilerriak lorez apainduak; hilen gomutaz ahaideak ekarri dituzte heriotzaren beste dimentsio batetan bizirik sentitzen dituztela adierazteko. Ez dugu denok erritual hau zentzu beraz betetzen, seguraski, baina oraindik geure herrian tradizioz hilenganako sentitzen duen errespetua agertzeko da, gutxienez. Loreak eta haziak ardatz beraren inguruan dabilten bezala, gizakiak ere badu itxaropenarekin zerikusirik; hazi usteltzen denerako lorea programatua dagoen bezala, gizakiak jaiotzetik du berekin hilen eta bizien arteko marka; batzuk jaso egin dute animaliairen gainetik, eta besteak, berriz, ubela isurtegian erortzen utzi. Irudimenez ari gara, noski. Baina gizakiaren irudi guztiak bezala, honek ere badu zentzu ezkutu bat. Zeruaren ametsa baliteke amets huts izatea, baina amets hutsa denak ere badu, bereziki gizakiari dagokion zerbait, eta lur honetako zentzu pragmatiko eta lehor honetan ere bada belaunaldien artean sortzen den maitasun hestu honetan bizirik irauten duen zerbait: bizi dugun mundu nahasi honetan nahi gabe ore, nahi honen aurka dagoenak ere, aztertzen du berekiko duen nortasunaren funtsa. Bakoitza nondik datorren, norantz dihoan, eta galdera hauek gurutzatzen diren puntuak nahi du aurkitu bere lekumena. Hau ez da geometriari bezain zehatz aurkitzen, baina ikas daiteke traszendentzi ezkutua sentitzen.